

ARIKETA

- 1.- Materialak hautatzeko zein irizpide iruditzen zaizkizu egokienak?
 - a) Haurrak ekintzarako dituen aukerak baliatzeko bide ematea.
 - b) Bere estimulu guztiak ahalik eta gehien piztea.
 - c) Denak balio du ongi landuta baldin badago.

- 2.- Zein izen jarri zion Vigotskyk haurrak bakarrik egin dezakeenaren eta gaitasun handiagoa duen pertsona baten laguntzaz egin dezakeenaren artean dagoen distantziari?
 - a) garapen erreala maila.
 - b) garapen potentzialaren maila.
 - c) garapen hurbileko eremua.

- 3.- Bikote Hezitzaileak
 - a) Erantzukizun berbera banatzen du hurrekin eta familiekin, eta erabakitze ahalmen berbera dute.
 - b) Aberastasun eta konplexutasun handiagoa ematen dio taldeari: eredu gehiago, ideia gehiago...
 - c) Biak dira zuzenak.

- 4.- Haurren elikadurari dagokionez, jarraibide hauetatik zein ez da zuzena?
 - a) Jateko orduan haurra behartzea.
 - b) Giro atsegin eta lasaia sortzea.
 - c) Ez bata ez bestea.

- 5.- Norekin lotzen duzu harriduraren pedagogia?
 - a) María Montessori-rekin.
 - b) Loris Malaguzzi-rekin.
 - c) Vigotsky-rekin.

- 6.- Jarraian dauden tailerraren adieren artean, zein da L. Malaguzziren pedagogiaren hurbilen dagoena?
 - a) Tailerrak haurren lengoia eta ez-hitzezko adimenerako aukera konbinatorio eta sormenezkoak eskaintzen ditu.
 - b) Tailerra desegokitasunerako ingurune gisa.
 - c) a eta b zuzenak dira .

- 7.-4-12 hilabete bitarteko haurren ikasgelako esku-hartzean, garrantzitsua da haur hezitzaileak:
 - a) Haurtoak lau oinetan ibiltzea helburu izatea.
 - b) Haur bakoitzaren erritmoa errespetatzea, haurrak berez egiten ez dituen mugimenduak egitera edo jarreraren bat egitera behartu gabe.
 - c) Une bereziak sortzea motrizitate lantzeko, eguneroko elikadura, higiegi edo loaren errutinez kanpo.

- 8.- 28/07 FD-aren arabera, Hezkuntza Proiektuan ez dira sartu behar:
 - a) Jarduteko printzipio, balio eta lehentasunak, edo zentroaren izaera propioa.
 - b) Proposamen Pedagogikoa.
 - c) Kudeaketa Proiektua.

- 9.- Jarraian dauden eduki guztiak landu daitezke psikomotrizitate jolasetan, hau izan ezik:
 - a) Gorputzaren ezaguera.
 - b) Ingurunearen ezaguera.
 - c) Gorputz adierazpen librea.

- 10.- Haur Eskola bateko hezitzaile bat, hurrekin zuzenean lanean ari denean, gai izan behar da...:
 - a) Laburbiltzeko.
 - b) Behatzeko.
 - c) Irekia izateko.

- 11.- Nolako ez da izan behar hezitzaile baten egitekoa Jolas Heuristikoko saio batean?
 - a) Antolatzailea.
 - b) Bideratzailea.
 - c) Abiarazlea.

- 12.- Jarraian agertzen diren haur-hezitzailearen profiletatik, zein da profil gidaria?
 - a) Haur bakoitzaren protagonismoa zaintzen du, entzuten du, errespetatzen du, enpatia maila handia du, haurra ulertzen du, harekin batera sentitzen du.
 - b) Haurren eskaera guztiak erantzuten die, beti balorazio positiboak eginez, edozein kritika edo beharkizun saihestuz.
 - c) Haurrari zer egin behar den esaten dio, azaltzen du eta haurrari lagundu edo zuzendu egiten dio, bere irizpidearen arabera beti. Bere hizkera aginduzkoagoa da eta, oro har, taldeari zuzentzen zaio.

- 13.- Proposamen pedagogiko batean adierazitako aniztasunaren arretarako berariazko neurrien artean, ez daude:
 - a) Tutoretzak: antolamendua eta funtzionamendua.
 - b) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako egokitzapenak.
 - c) Denak dira aniztasunaren arretaren parte.

- 14.-** Zer ez dugu egin behar infekzio bat saihestu nahi badugu?
- Garbitzeko kotoia erabili.
 - Zauria ur zurrustarekin garbitu.
 - Zauria apositu esteril batekin estali.
- 15.-** Entzuketaren esanahia:
- Haurrek ekoizten dituzten lehen hitzen behaketa gisa.
 - Entzuketeta emozio gisa, haurren emozioen eraginarekin eta, bere aldetik, emozio gehiago estimulatuz.
 - Adin horretako haurrek normalean ez dute esaten zaiena entzuten.
- 16.-** Zein izan behar da 0-3 urte bitarteko ikasgelako programazioaren ardatz egituratzailea?
- Eguneroko bizitzako jarduerak.
 - Unitate didaktikoak.
 - Tailerrak.
- 17.-** Hezitzaile batek, tailer baterako proposamen bat prestatzen ari denean, aintzat izan behar du:
- Materiala segurua izatea, eta proposamena estetiko eta akuilagarria izatea.
 - Ezer ez, proposamenak tailerra egiten duenak prestatzen dituelako.
 - A eta b zuzenak dira.
- 18.-** Ohiturak:
- Ohiturek helburu bat dute beti.
 - Ohiturak berrantolatzeke tresnak dira.
 - Ez bata ez bestea.
- 19.-** Tailerren ezaugarri dira:
- Haurraren osotasuna hartzen dute aintzat.
 - Eredu konstruktibista hartzen dute erreferentzia gisa.
 - a eta b zuzenak dira.
- 20.-** Adierazi zeintzuk diren Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren elementu nagusiak:
- Testuinguruaren araberako aldagaiak eta ikuspegi ideologikoa edo nortasun printzipioak.
 - Ikusmolde pedagogikoa eta antolamendu- eta egitura-eredua.
 - A eta b erantzunak zuzenak dira.
- 21.-** Jarraian dauden adierazpenen artean, esan zein den zuzena:
- Ariketa jolasak, kronologikoki, jolas sinbolikoaren aurrekoa dira.
 - Ariketa jolasak jolas sinbolikoaren aroa amaitu ostean hasten dira.
 - Ariketa jolasak ez dira gertatzen Haur Hezkuntzaren aroan.
- 22.-** Hezitzaileak egokitzapen aldian izango duen egitekoa da:
- Haurra behartzea, lehenbailehen onar dezan.
 - Haurraren maiz gerturatzea, haurra hezitzailea onartzeko prest dagoeneko unearen zain.
 - Ez ikusiarena egitea.
- 23.-** Haur Eskolako lanaren dokumentazioaren adibide bat da:
- Argazki taula.
 - Noten buletina.
 - A eta b zuzenak dira.
- 24.-** Hezitzailearen lana zuzentasunez garatzeko, ezinbestekoa da:
- Taldeko lanerako gaitasunak izatea.
 - Etengabeko prestakuntza on bat eskuratu ahal izatea.
 - A eta b zuzenak dira.
- 25.-** Haurrak aro prekontzeptualean duen joera, alegia, denak bizitza eta sentimenduak dituela sinestekoa, izen honekin ezagutzen da:
- Animismoa.
 - Artifizialismoa.
 - Fenomenismoa.
- 26.-** Hezitzaileak egokitzapen aldian duen egitekoa da...:
- Haurraren sentimenduekiko begirunetsua eta lasaigarria.
 - Haurraren egokitu gabe dauden portaerak behatu eta indartu behar ditu.
 - a eta b zuzenak dira.
- 27.-** Loris Malaguzziren arabera, entzuketari buruzko adierazpen hauetatik zeintzuk dira zuzenak?
- Entzutea haurren kultura ulertzeko artea da: haien pentsamoldea, haien egiteko, galdetzeko, teorizatzeko modua, eta abar ulertzekoa.
 - Entzuketeta gure begiek eta belarriek antzematen dutenarekin ez fidatzea da.
 - a eta b zuzenak dira.

28.- Definitu zer den programazio bat:

- a) Eskola elkarteko kide guztiek onartzen duten erabakien multzoa, oinarrizko hezkuntza aukerei buruzkoa eta ikasgelaren antolamendu orokorrari buruzkoa.
- b) Plangintza antolatu bat, hezkuntza jardueran esku hartzen duten elementuak, lortu beharreko helburuak eta horiek lortzea ahalbidetzen duten bitartekoak barne hartzen dituena.
- c) Ez bata ez bestea.

29.- 0 eta 3 urte bitarteko haur hezkuntzan lan egiten duten profesionalak:

- a) Ez dute haien hezkuntzako esku-hartzearen inguruan hausnartu behar, ezta haien jardura birformulatu behar ere, betiere haien nagusiek adierazten duten moduan jokatzerara mugatuz.
- b) 0 eta 3 urte bitarteko haurren garapenean familiekin, taldeekin eta gainerako profesionalekin parte hartzeko beharrezko prestakuntza izan behar dute.
- c) Denak dira zuzenak.

30.- Adierazi erantzun zuzena, 28/2007 Foru Dekretuaren arabera. 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituena izanik.

- a) Proposamen pedagogikoan Hezkuntza proiektua sartu behar da.
- a) Hezkuntza proiektuan Proposamen pedagogikoa sartu behar da.
- c) Aurreko adierazpenak ez dira zuzenak.

31.- Orokorrean, haurren garapen motorrean lekualdatzeko agertu ohi den lehenengo modua da:

- a) Lau oinetan ibiltzea.
- b) Arrastaka mugitzea.
- c) Pirritan ibiltzea.

32.- Haurrak haur eskolan sartu aurretik:

- a) Ez da beharrezkoa familien iritzia ezagutzea, izan ere, familia eta ikastetxea testuinguru desberdinak baitira.
- b) Berdin dio aldez aurreko erreferentziak edukitzea edo ez, eguneroko harremana oso zuzenekoa baita.
- c) Garrantzitsua da familiek ikastetxeari haien seme-alabari buruzko ahalik eta informazio gehien ematea.

33.- Hezitzailearen eta haurraren arteko harremanean:

- a) Garrantzitsua da familia ordezkatzen jakitea, haurra ikastetxean dagoela.
- b) Garrantzitsua da konfiantzan eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako harremana sortzea.
- c) A eta b zuzenak dira.

34.- Haurren sozializazioaren lehenengo ekintzak agertzen dira...:

- a) Jaiotzen direnetik.
- b) Lehenengo zezelkatzeak ahoskatzen dituztenean.
- c) Objektuekiko interesa duenean.

35.- Jarraian dauden elementuen artean, zeintzuk ez dira ikasgelako programazioaren parte?

- a) Helburuak.
- b) Estrategia metodologikoak.
- c) Familiekin koordinatzea.

36.- Atxikimenduzko lotura egonkor eta baldintzagabeak errazteak...:

- a) Haurrak hezitzailearekiko mendetasuna izatea eragiten du.
- b) Segurtasun emozionala eta autoestimua suspertu eta errazten ditu.
- c) Guraso eta hezitzaileen arteko harremana oztopatzen du.

37.- Egokitzapen aldian gurasoak ikasgelak egotearen oinarrizko funtzioa da...:

- a) Haurrari ingurune berria miatzeko, ezezagunekin harremanak izateko, eta abarretarako segurtasuna ematea.
- b) Taldeko gainerako haurrak ezagutzea.
- c) Ikastetxea eta hezitzaileak ezagutzea.

38.- Haur bat 14 hilabete bete aurretik ibiltzen ez bada...:

- a) Ez gara kezkatu behar.
- b) Kasua adituei bideratuko diegu.
- c) Estimulazio motorreko programa bat prestatuko dugu, anomalia hori zuzentzeko.

39.- Dietaren eta haurren elikaduraren plangintzarako gidalerroei dagokienez, ez guke baiezatu behar...:

- a) Jateko gogo txikiagoa duten aldietan prestakin dietetiko eta farmakologikoak gehitu behar direla.
- b) Adinarekin, jardura fisikoarekin eta gorpuzkerarekin lotutako kaloria-beharren arabera izan behar dela.
- c) Dieta bere osotasunean aintzat hartu behar dela.

40.- Familiaren eta ikastetxearen arteko eguneroko komunikazioari dagokionez:

- a) Zuzendaria izango da familiei haien seme-alabaren hezkuntza prozesuaren berri emateaz arduratuko dena.
- b) Hezitzaileak izango dira familiei haien seme-alabaren hezkuntza prozesuaren berri emateaz arduratuko direnak.
- c) Deituko diren taldeko bileretan gauzatuko da, gutxienez, hiru hilabete behin.

41.- Behaketan eta esperimentazioan oinarritutako metodologia, haur-hezkuntzan, honetan oinarritzen da:

- a) Haurrak jakin-mina du hurbileko fenomenoekiko eta, beraz, ikertzerara eramango du erantzunak aurkitzeko nahiak.
- b) Langile hezitzaileek, eguneroko praktika hobetzeko, behaketan oinarritutako ikerlanak garatu behar dituzte ikasgelan.
- c) Ikasgelan gertatzen den guztiari argazkiak egin eta dena dokumentuetan jaso behar da, hobe eta lasaiago aztertu ahal izateko.

- 42.-** Zer da "barne-entzutea"?
- Hurrek beren irudi mentalak edo teoriak beste batzuei komunikatzen dizkietenean, halaxe irudikatzen baitizkiote beren buruari, ikuspegi kontzienteagoa bat garatuta.
 - Isilik daudenean, beren gorputzen soinuei adi.
 - Adierazi aurretik adimenean arrazonamendua egiteko gai direnean.
- 43.-** Proposamen pedagogiko baten "nola irakatsi" delakoak ondoko guztiari dagokio, honako honi izan ezik:
- Arduradunak, batzordeak eta ordezkariak aukeratzeari buruzko erabakiak.
 - Metodologia didaktikoari buruzko irizpide eta aukerak.
 - Curriculum-material didaktikoak aukeratzea.
- 44.-** Zer adinetan hasten da jolas sinbolikoaren etapa?
- 12 eta 18 hilabete bitartean.
 - 18 eta 24 hilabete bitartean.
 - 24 eta 36 hilabete bitartean.
- 45.-** Zer da osasuna Osasun Mundu Erakundearen arabera?
- Gaixotasun-eza.
 - Ongizate fisiko, mental eta sozial bete-betean egotea.
 - Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.
- 46.-** Gurasoen eta haur-hezkuntzako zentroaren arteko harremanen oinarrizko eginkizuna zera da:
- Adiskidantza loturak ezartzea.
 - Umeari buruzko informazioa elkarri trukitzea.
 - Aurreko bi erantzunak okerrak dira.
- 47.-** Haur-hezkuntzako zentroek giro epel, eroso eta segurua izan behar dute...
- Pertsonen arteko harremanak estimulatzeko eta auto-irudi fidela eta positiboa eraikitzen laguntzeko.
 - Ingurunea mailaz maila ezagutzeak dakartzkien erronka txiki edo handiei aurre egiteko.
 - Bi erantzunak zuzenak dira.
- 48.-** Zer atxikimendu-mota da egokia?
- Atxikimendu segurua.
 - Atxikimendu segurua saihestearekin.
 - a eta b zuzenak dira.
- 49.-** Haur-hezkuntzako lehen zikloko ikasgela bat banatzeko orduan, taldearen garapen motorraren unean zehazki, hauxe kontuan hartuko dugu:
- Altzariak banatzea erdian espazio zabal bat uzteko moduan, umeak mugitu daitezten.
 - Altzariak banatzea labirinto-itxurako ibilbideak sortzeko moduan, erronka motorrak sortu eta gorputz-mugimendu desberdinak errazteko lagungarri izango direnak.
 - Altzariak banatzea jardueraren txokoak behar bezala definituta uzteko moduan.
- 50.-** 0 eta 3 urte bitarteko umearen heziketari dagokionez, egile hauetako zeinek definitzen du tailerra "ikertzeko toki" gisa?
- Emmi Pikler.
 - Loris Malaguzzi.
 - Sigmund Freud.
- 51.-** Baieztapen hauetako zein da gezurrezkoa entzutearen esanahiari dagokionez Reggio Emilian?
- Beharrezkoa da zentzumen guztiekin entzutea, ez bakarrik belarriekin.
 - Entzuteak komunikatzeko erabiltzen ditugun hizkuntza, ikur eta kode askotarikoak ezagutu beharko lituzke.
 - Umeak helduari entzun behar dio ikasteko.
- 52.-** Norena da "Aurkitzearen bidez ikastea" delako teoria?
- J. Bruner.
 - Ausubel.
 - Vygotsky.
- 53.-** Loris Malaguzziren tailerrean hauxe egin beharra dago:
- Tailer bakoitzaren helburuak zehatz-mehatz definitu hezitzaileen interesen arabera.
 - Umek une bakoitzean erabiltzen duten teknika artistikoari arretaz behatzea.
 - Hizkuntza desberdinen pluraltasuna eta loturak errespetatu.
- 54.-** Nola antolatuko ditugu materialak?
- Ahal bada, elkarren arteko lotura dutenak toki berean jarriko ditugu.
 - Garapen betea denez, ez du garrantzirik.
 - Aurreko biak.
- 55.-** 1907an, lehen "La casa dei Bambini" eskola eratu zen. Nork eratu zuen?
- Rousseau.
 - Rosa eta Carolina Agazzi.
 - María Montessori.

- 56.-** Altxorren saskiari dagokionez, egia da...
- Bereziki jarduera egokia dela berez esertzen ez diren eta ibiltzen ez diren haurrentzat.
 - Bereziki jarduera egokia dela bularreko umeen talde osoarekin egiteko.
 - Ume txikien ikertzea, aurkitzea eta kontzentrazioa bultzatzen dituen jarduera dela.
- 57.-** Zer egilerena da printzipio hau: "ikasten ari denak dakiena da ikaskuntzan eragina duen faktore bakun garrantzitsuena da"?
- Bruner.
 - Piaget.
 - Ausubel.
- 58.-** Haur-hezkuntzako hezitzailearen profil profesionala zehazteko orduan, faktore hau kontuan hartu behar dugu, besteak beste:
- Antolaketaerako, elkarlanerako eta kontingentzietan erantzuteko profesionaltasun teknikoaren dimentsio desberdinei buruzko gaitasunak sartzeko.
 - Nolabaiteko espezializazioa zehaztea, lanpostuan behar bezala arituko dela bermatzeko.
 - Denak zuzenak dira
- 59.-** Decrolyren pedagogiaren funtsezko elementua da...
- Aldamioak.
 - Interes-zentroak.
 - Ikasketa esanguratsua.
- 60.-** Emmi Picklerren arabera, autonomiak esan nahi du haurtxoak berezko jardueran zehar...
- Gauza dela egiteko bere ekimenetik abiatuta.
 - Bere jarrerak ez duela adierazten ez zalantza- jartzerik, ez harridurarik aurkitutakoaren aurrean.
 - Bi erantzunak dira zuzenak galdera zein den ikusita.
- 61.-** "Bikote hezitzailea" garrantzitsua da haur-eskoletan...
- Aukera ematen duelako bi heldu-eredu desberdinekin egoteko.
 - Bi ikuspuntu desberdin daudelako gertakizun berari buruz.
 - Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.
- 62.-** Emmi Picklerrek zera defenditzen zuen bere teorietan:
- Mugimendu-askatasuna.
 - Mugimendu-estimulazioa.
 - Estimulazio goiztiarra.
- 63.-** Gaitasunaz hitz egiten dugunean, adimenaz ari gara zentzu zabalenean, adimen operatorioaz, "nola" jakiteaz eta ez bakarrik "zer" jakiteaz. Zer egilerena da goikoa, zure ustez?
- Piaget.
 - Bruner.
 - Ausubel.
- 64.-** Esan zergatik sentitu dezakeen umeak mina ahoan eta uko egiten dion jateari?
- Mihi geografikoa.
 - Aftasa.
 - a eta b erantzunak zuzenak dira.
- 65.-** Hona hemen Reggio Emiliako metodologiaren ezaugarriak:
- Umea da bere heziketaren protagonista nagusia.
 - Bikote hezitzailearen garrantzia.
 - Bi erantzunak zuzenak dira.
- 66.-** Umeen sormena "agerikoagoa da helduak saiatzeko badira arreta gehiago ematen prozesuei emaitzei baino". Norena da esaldia?
- Rosa eta Carolina Agazzi.
 - Loris Malaguzzi.
 - Emmi Pikler.
- 67.-** Tailer bidezko pedagogiak hainbat inplikazio positibo dakartza irakaste-ikaste prozesuetan, hala nola:
- Lagungarria da umeen sormenerako.
 - Sormena eta ikerketa estimulatzen ditu.
 - a eta b zuzenak dira.
- 68.-** Jolas heuristikoen helburu nagusia da...
- Memorizatu eta antolatzea.
 - Ikertu eta aurkitzea.
 - Sistematizatu eta gauzatzea.
- 69.-** Hona hemen haur-hezitzailearen eginkizun batzuk:
- Programatu, esku hartu heziketan eta ebaluatzea.
 - Umeen garapen autonomoan lagunduko duten irakaste-ikaste metodoak aplikatzea.
 - a eta b zuzenak dira.

- 70.-** Loari eta atsedenari dagokienez, zein da okerra?:
- Loaren helburu ezagunetako bat bizi- eta energia-funtzioen berreskuratzea ahalbidetzea da.
 - Loari buruzko teoriak askotarikoak dira. Batzuek eten egiten dute loan, eta beste batzuek, jardun.
 - Loaren erdigune bat dago, zerebeloaren oinarrian.
- 71.-** Familiaren eta haur-eskolaren arteko harremanek hauetan oinarritu behar dute:
- Elkarganako errespetua eta konfiantza.
 - Familia bakoitzaren berezitasunak onartzea.
 - Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.
- 72.-** Emmi Picklerrek hauen arteko bereizketa egiten du garapen motorraren eskalan:
- Posizio egonkorak (edo estatikoak) eta tarteko posizioak.
 - Posizio seguruak edo arrisku-posizioak.
 - a eta b zuzenak dira.
- 73.-** Ondokoetako bat ez da programazioen ezaugarrietako bat. Zein da?
- Ez du inprobisazioa onartzen.
 - Eskura dauden material, baliabide eta denborak ordenatu eta banatzen ditu, eta, ondorioz, errentagarritasuna ateratzen die.
 - Hausnarketa eta ikerketa estimulatzen ditu, eta irakaskuntzaren kalitatea hobetu.
- 74.-** Piageten teorian, honexegatik esaten zaio horrela aldi sentsoriotorrari:
- Eta horretan, adimena praktikoa da funtsean, eta sentsorialari eta mugimenduzkoari lotuta dago.
 - Piageten teoriak ez du aldi hori jorratzen, baina bai Vigotskyrenak.
 - Helduak etapa horretan agertu behar du sentikorren umetxoaren premien aurrean.
- 75.-** Eskola Berriaren mugimenduak ezaugarri hauek ditu:
- Ahalegin indibiduala eta ikasteko ardura azpimarratzen ditu.
 - Eskola tradizionalarekiko alternatiboa da.
 - Aurreko erantzunetatik, bat ere ez da zuzena.
- 76.-** Ikastetxearen heziketa-proiektua da:
- Hezkuntza Departamentuak ezarritako dokumentu bat, ikastetxe bakoitzaren helburu pedagogiko eta estrategikoak biltzen dituena.
 - Hezkuntza-komunitateak prestatutako dokumentu bat, izaera pedagogikokoa, ikastetxe baten ezaugarriak zerrendatu eta definitzen, lortu beharreko helburuak formulatzen eta ikastetxearen antolakuntza- eta funtzio-egitura adierazten duena.
 - Ikastetxe bakoitzaren zuzendaritzak prestatutako dokumentu bat da, izaera pedagogikokoa.
- 77.-** Malaguzziren arabera, bikote hezitzaileak ez dakar...
- Probokaziorik, ez eta haustura kulturalik ere.
 - Antolaketa-aukeren hazkundera.
 - a eta b okerrak dira.
- 78.-** Emmi Picklerren pedagogian, honelakoa izango da helduaren rola umearen mugimenduari dagokionez:
- Aktiboa, umeak oraindik egin ezin dituen mugimenduetan lagunduz.
 - Aurrea hartuko du, eta umetxoari mugitzen lagundu.
 - Umetxoaren garapenaren erritmoa errespetatuko du, eta haren autonomia garatzeko aukerak eskaini.
- 79.-** Haur-hezkuntzako ikasgela txokotan antolatu nahiko bagenu, zein ez da ezinbestekoa kontuan hartu beharrekoen artean?:
- Txokoak ikasgelak eskaintzen dituen aukeren arabera antolatu behar dira, eta taldearen zein ikasgelaren beraren premiak ase beharko dituzte.
 - Funtsezkoa da gurasoen elkarlana txokoak eraikitzeke orduan.
 - Ikasgelan jarritako txoko-kopurua ondokoen arabera ezarriko da: programatutako objektuak, taldearen zein ikasgelaren beraren interesak, ume-kopurua eta zer neurritaraino esku hartu behar duen hezitzaileak.
- 80.-** Loris Malaguzziren arabera, adierazpen-tailerra...
- Ume gutxirekin egiten da.
 - Ume guztiak elkarrekin parte hartuz egin behar da.
 - Aurreko erantzunetatik, bat ere ez da zuzena.
-